

# **UDALTZABARRAREN AKORDIOA**

**2016-12-20**



**ZIURTAGIRIA**

**AMAIA GORROTXATEGI ZUBIZARRETA ANDREA, ARRASATEKO UDAL  
AGURGARRIKO IDAZKARIA**

**NEUK ZIURTATUA:**

Udal Plenoak, 2016ko abenduaren 20an egindako bilkuran, besteak beste, honako akordioa hartu zuen:

**“2017. EKITALDIKO AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSATZEA.(2016DPRE0001)**

Udal Plenoak, Udal Korporazioara osatzen duten 21 zinegotzietatik bilkuran 21 bertaratu direnak, EAJ-PNV (8) eta PSE-EE(3) udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, BALEIKE (2) eta IRABAZI (1) udal taldeko zinegotzien aurkako botoekin eta EH-BILDU (7) udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, Ogasun Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Alkateak aurkeztu zuen 2017ko aurrekontuen hasierako proiektua 2016ko azaroaren 4an, eta bidali zien gainontzeko udal talde politikoei, aztertu eta eztabaidatzeko. Agiri horrek, gastuari dagokionez, oinarria du udal sailek egindako eskaeretan eta, sarrerei dagokienez, udalak hartutako erabakietan gehi beste administrazioetatik jasotako informazioetan.

Hartarako emandako epean, EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeek hainbat zuzenketa aurkeztu dituzte, 2017ko aurrekontuen proiektuari dagokionez. Zuzenketa horiek gobernu taldeak aztertu ditu, eta udal talde politikoekin izandako bileren ondorioz, batzuk (dotazioak handitu laguntza programetarako, enplegu arloko langabeentzat, kontu sailak sortu azterketa teknikorako, Amaia antzokian obrak egin eta Etxezarretan lurrak erosteko) onartu dira, eta txertatu dira aurrekontu proiektuan.

Aldi berean, izaera teknikoko zenbait aldaketa/egokitzapen sartu dira proiektuan (batzordekako antolaketa berrira kodifikazioa egokitzea, informazio zehatza jaso eta gero Mankomunitateko eta Zubillaga abere hiltegiko zerbitzuen kuotak zuzentzea, 1. kapitulu kontu sailak egokitzea pertsonalari buruzko erabakietara, martxan jarri diren kontratazio espedienteetatik ondorioztatzen diren gehienezko kopuruak jaitzea, Iturbide Egoitzako defizitaren balioespena gaur egungo errealitatera ekarri, lortutako laguntzagarik karpa berri baten erosketa aurreikusi, etab.). Aldaketa teknikoaz gain, gobernu taldearen proposamen berriak ere sartu dira aurrekontu proiektuan (nagusiak, obretarako ekarpena “Lanako errotonda” egiteko eta dotazioak handitu brigadako ekipamendurako).

Aldaketa horiekin guztiekin Ogasun batzordean aztertu da 2017 ekitaldirako aurrekontu proiektua, zenbateko hauekin:

2017ko ekitaldiko aurrekontu orokorren proiektuak, jarri dena udalbatzarrak onartu dezan, **HOGETA HAMALAU MILIOI ZORTZIREHUN ETA LAUROGEITA HIRU**



Esp.kodea: 2016DPRE0001

Gaia: 2017 URTEKO UDAL AURREKONTUA  
Hasiera eguna: 2016/12/13

MILA ETA BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA BERROGEITA BI ZENTIMO (34.883.297,42 €), eta aurrekontu horretan sartuta daude Udalaren beraren aurrekontua, HOGEITA HAMAIKA MILIOI BOSTEHUN ETA HOGEI MILA ETA LAREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA BERROGEITA LAU ZENTIMO (31.520.472,44€) eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren aurrekontua, HIRU MILIOI ETA LAUREHUN ETA BAT MILA ETA BOSTEHUN ETA HOGEITA SEI EURO ETA HOGEITA BAT ZENTIMO (3.401.526,21 €).

Aipatutako proiektua aztertu eta gero, aurrekontuko kontu sailak eta exekuzio arauak (konpromiso kredituen aurreikuspenekin) barne, Ogasun batzordean bozkatu da. Botazioaren emaitzaren arabera, Ogasun batzordeak, EAJ-PNVko bi ordezkarien eta PSE-EEko ordezkariaren aldeko botoekin, EH BILDU ordezkariaren abstentzioarekin eta BALEIKEko eta IRABAZIko ordezkarien kontrako botoarekin, proiektuari aldeko txostena ematen dio, eta osoko bilkurari proposatzen dio akordio hau hartzea:

1.- Hasiera batean onartzea 2017ko ekitaldiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu udalaren beraren aurrekontua eta ITURBIDE EGOITZA erakunde autonomoaren aurrekontua, aurrekontu bakoitzaren exekuzio arauarekin batera, eta udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu eta bidezkoztat jotako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, 15 egun balioduneko epean, jende aurrean erakusteko, iragarkia argitaratzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko aldi horretan erreklamaziorik jaso ezean aurrekontuaren aurka.

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2017ko urtarrilaren 2a.

O.E.  
ALKATEA

